

NARLA-KO SAN PAIO-KO GOTORLEKU MUSEOA

(Lugoko Aldundiaren Museo Sarea)

ERAIKINAREN HISTORIA

Xiá edo Narla-ko San Paio Dorrea seguraski XII edo XIII. mendeetan eraikia da, horri erreferentzia egiten dioten lehen dokumentuak XIV. mendekoak diren arren. Irmadiño-en Gerlak suntsipen handiak eragin zituen Dorrean, XVI. mendeko dokumentuetan Vasco das Seixas-ek berori berreraikitzeko lanak agindu baitzituen.

1939an, Manuel Vázquez Seijas jaunaren kudeaketa eta bitartekaritzari esker, Lugoko Aldundiak bereganatu zuen, eraitsia izatea saihestuz.

Hiru gorputzez eta kanpoko kapera batez osatutako eraikinean, garai desberdinetako eraikuntza elementuak daude, XVI. mendetik hasi eta XIX. mendera arte, Erdi Aroko materialeak berriz aprobetxatuz.

BEHE SOLAIRUA

1. PATIOA

Horren inguruan, tradiziozko ofizioekin lotutako zenbait bilduma daude, hala nola, nekazaritza, saskigintza edo *zoqueiro*-ak direlakoak. Ondoko gela batean, lau ohe ikus daitezke, horietako hiru Olot motakoak eta bat neoklasikoa, museo honetan dauden ohe multzoen lehen zatia osatzen dutenak.

2. ZALDITEGIAK

Gune honi “garraio gela” deitu ahal zaio, bertan jarduera horrekin lotutako zenbait pieza jarri baitziren, hala nola, eskuko aulki bat eta litera bat (Juan López Suárez-ek dohaintzan emana eta Pazo de Rivas de Sober-eko Jauretzetik etorria), edo espainiar eta hegoamerikar jatorriko zelak, ezproi bilduma bikain batekin batera.

3. UPELTEGIA

Zenbait ale bitxi daude, adibidez, zahagi bat, ardoarentzako neurriak, mahatsarentzako prentsak edo kupelak. Horien bitartez, jangelarekin lotuta dagoen gela honetako berezko elementuak erakusten dira, jangelari erantsitako gela batez bitartez.

GOIKO SOLAIRUA

4. SUKALDEA

Bertan antzinako eraikuntzaren hiru elementu daude: lareira (sutondoa), labea eta komuna. Gainera, galiziar sukaldearen askotariko altzari ugari daude: hiru aulki, kapoi kaiola bat,

altxagarri bat (apalak dituen altzari bat toskarako), bi *cunqueiro* (ontziak jartzeko); eta beira arasetan zenbait bilduma txiki jarri ziren: txokolaterak, plantxak, galiziar zeramikako aleak...

5. ARETOA

Gelan elementu bat da nagusi: eserlekuak dituen bisitak jasotzeko gela handia. Era berean, aipagarria da, errenazimenduko apaingarriak dituen tximinia, sakristiako armairu eder batekin batera, seguraski XVII. mendekoa. Zutikako ordulari bildumak eta ur iragaziak ere aipagarriak dira, nobleziak erabiltzen zituenak edateko ura izatera bideratutako ura purifikatzeko.

Erdiko gunean zenbait beira arasa jarri dira, ale interesgarriak dituztenak. Adibidez, XVIII. mendeko ekisaindu bat, erlijio irudiak eta Purgatorioko bi arima, XVII. mendeko santutegi-zaindari baten kutxarekin batera, Ermidetako Amabirjinaren irudiarekin. Galiziar herri-urregintzaren edo azabatxean (harri babeslea, Galiziako kulturari estuki lotua) egindako lanen laginak ere badaude.

6. EHUNDEGIA

Ez dakigu jatorrian zein erabilera zeukan gela honek, baina ardotegiaren eta egongelaren artean dagoenez, litekeena da bertako langileek erabiltzea. Hori dela eta, artilearekin, kotoiarekin eta linuarekin lotutako areto bat instalatu zen bertan: *caneleiro*-a, matazak harilkatzeko armazoia, flekodun ehungailua, harilkatzeko tornoak, parpaila egiteko almohadak, burdin sareak, kardak, harilkaiak, goruak edo ardatzak.

7. KORRIDOREA

Egongelatik aterata, arte industrialetako zenbait bilduma ikus daitezke. Adibidez, argiztapenarekin lotutako objektuak (mukaderak, kaputxinoak, olioeko lanparak, ganderailuak, argimutilak, gakodun kriseiluak edo kinkeak) eta almerizeak, gehieneak XVIII eta XIX. mendeetakoak.

8. IDAZGELA

Gela honetan, idazteko lanarekin lotutako zenbait tresna daude: kirtendun tintontzi portatilak, (XVIII eta XIX. mendeetako eskribanoek erabiltzen zituztenak), idatzi berria xukatzeko goiko aldean zuloak dituzten edalontziak, eta baita bastoi bilduma oparoa, armairu barroko bat eta garai bereko Basgas-ko altzari tradizional bat ere.

9. LOGELA

Atsedenerako logela baten berregitea, oinetan arropa gordetzeko kutxa bat duelarik, eta baita ohea berotzeko gailu bat eta konketa bat ere.

DORREA ETA KAPEREA

10. DORREKO LEHEN SOLAIRUA

Bertan arma zuriei eskainitako saila dago, XVII. mendeko gerlari samurai baten armadura harrigarria erdian duela, Juan López Suárez-ek dohaintzan emana. Aipagarriak dira Filipenetako

eta Kubako matxeteak, dagak, sableak, arropa-ezpatak, borrokarako giltzak edo malla-kotaz egindako Erdi Aroko eskularrua.

Atetxo batetik gotorlekuko antzinako ziega itsua ikus daiteke, eta bertan bilurrak dituen kate erraldoi bat gordetzen da.

11. DORREKO BIGARREN SOLAIRUA

Areto honen hasieran “mairu” motako armadura filipinar bat da nagusi, karabaozko azkonen plakekin, malla- eta latoi-kotarekin, XVII. eta XVIII. mende bitartekoa. Pistolak eta aurreko eta atzeko karga duten pistoloiak, eskopetak, karabinak, fusilak, kanoiak, eta abar. Bilduma horien osagarri, adarrak eta ehizarako hauts-kaxak daude.

12. DORREKO HIRUGARREN SOLAIRUA

Gela honetako elementu aipagarriena Vascos das Seixas-ek XVI. mendean eraikitzea agindu zuen errenazimenduko tximinia da, animalia- eta landare-motiboekin apainduta. Bertan atsedenerako gainontzeko bilduma aurki daiteke: Olot motako bi ohe barroko, portugaldar jatorriko beste bi galiziar eta sehaska bat, Dompedro motako besaulki batekin batera.

13. KAPERA

Eraikinaren kanpoan, eta dorrera sartzeko arranpa amaitzean, lau angeluko oina duen eraikin txiki hau dago, XVIII. mendean eraikitakoa.

XIX. mendeko erretaula bat du, zenbait herri irudirekin. Horien artean aipagarria da San Pelaoirena, antzinako konfesio-lekua, organo liturgikoa, belaunalki bat eta erlijio-iruditeria duten zenbait ale.

BISITA ORDUTEGIA

-Apirilaren 1etik irailaren 30era:

-Asteartetik ostiralera: 11,00etatik 14,00etara eta 17,00etatik 20,00etara

-Larunbat, igande eta jai-egunak: 12,00etatik 14,00etara eta 17,00etatik 20,00etara

-Astelehenak: itxita

-Urriaren 1etik martxoaren 31ra:

-Asteartetik ostiralera: 11,00etatik 14,00etara eta 16,00etatik 18,00etara

-Larunbat, igande eta jai-egunak: 12,00etatik 14,00etara eta 16,00etatik 18,00etara

-Astelehenak: itxita

AURKITU GAITZATU WEB ORRI HONETAN:

<http://museosanpaio.blogspot.com/>

<http://www.facebook.com/museodesanpaio@sanpaiodenarla>